

2022JDID0001

EKKO PROGRAMA: BEGIRALEEN FORMAZIORAKO DIRU LAGUNTZA

1.- artikulua: Helburua.

Deialdi honen xedea da Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateak 2022ko martxotik eta ekainera bitartean burutuko duen “Haurren trebetasun sozialak lantzeko dinamizazio-estrategietan espezializazio ikastaroa” ko matrikula gastuak ordaintzeko laguntzak emateko baldintzak arautzea.

Hezkuntza formalean eta hezkuntza ez formalean aritzen diren eragileak haurren artean komunikazioa lantzeko estrategiak, autoestimua lantzeko premia, gatazkak kudeatzeko estrategiak eta erabakiak hartzeko estrategiak lantzeko beharrarekin bat egiten dute, trebetasun sozialetan hutsune handiak dituztela antzematen dutelako.

Are gehiago, begiraleei zuzendutako prestakuntza-ikastaro horren bidez, gazteen partehartzea, gazteen sarea mantentzea eta garatzea bultzatzen da, bai eta gazteen boluntariora sustatzea ere; gainera, nerabe eta haurren dinamizazioa bultzatzen da, baigaztelekuetan, bai ludotekan edota udalekuetan besteak beste.

2 .- artikulua. Onuradunak.

Baldintza hauek betetzen dituzten pertsonak izan daitezke diru laguntza honen onuradun:

1. Eskoriatzan erroldatuta egotea.
2. Eskoriatzako udalerrian 10 eta 13 urte bitarteko haurrei eta aurrenerabeei begirale bezala zerbitzua ematea.
3. Haurren trebetasun sozialak lantzeko dinamizazio-estrategietan espezializazio ikastaroan matrikulatuta egotea.
4. Ikastarorako asistentzia %80koa izatea
5. kastaroa gainditzea eta titulua lortzea dagokion epe barruan.
6. Eskatzaileak, eskabidea aurkezterakoan, ez du zorrik izan behar Eskoriatzako Udalarekin, nahiz eta ez duen inolako justifikiaziorik aurkeztu beharko. Udalarekiko zorrak daudenean, ez da diru laguntzarik emango.
7. Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13.artikulan aipatzen diren desgai-kuntza-egoeretako batean ere ez egotea.

Ikasturtean zehar onuraduna erroldan alta edo baja ematen bada, ikastaroak irauten duen bitartean erroldatuta egon den denboraren proportzionaltasunaren arabera esleituko zaio diru laguntza.



3.- artikulua: Araudi aplikagarria.

Deialdi hau ondoko araudi honek arautzen du:

- Oinarri hauek
- Diru laguntzei buruzko Eskoriatzako Udalaren 2020-2023 Plan Estrategikoa
- Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzen duen Ordenantza Orokorra.
- 39/2015 Legea, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearena.
- Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra (2003-11-18 Estatuko Aldizkari Ofiziala) eta Diru-laguntzen Erregulamendu Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa, eta zehazki, 17. artikulua 36. Puntua, gazte-politiken plangintza, antolamendua eta kudeaketa udal-errien eskumen propio gisa arautzen dituen.

Araudi honetan jaso ez diren alderdi guztietan, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta indarrean dauden gainerako legeak aplikatuko dira.

4.- artikulua. Aurrekontu kreditua

Aurrekontu-esleipena zortzi mila (8.000) eurokoa izango da guztira, eta 2022:0600.480.337.20.01.2022 aurrekontu-aplikazioaren kontura finantzatuko da.

Emango diren laguntzen zenbateko osoa ez da izango adierazitako kontsignazioa baino handiagoa.

5. artikulua. Diruz lagundu daitezkeen gastuak, laguntzen zenbatekoa eta muga.

Laguntzen helburua ondorengo ikastaroan matrikula-eskubideek eragindako gastuak konpentsatzea da: "Haurren trebetasun sozialak lantzeko dinamizazio-estrategietan espezializazio ikastaroa"

- Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateak emandakoa 2022ko martxotik ekainera arte.

Dirulaguntzaren kopurua honela kalkulatu da: dirulaguntzarako aurreikusitako zenbakitotala zati onartutako eskabide guztien batura egingo da.

Onartutako kopurua ez da inoiz matrikularen kostua baino handiagoa izango.

Programa honetan aurreikusitako laguntzak bateragarriak izango dira helburu bera duten eta/edo kontzeptu berberak diruz laguntzen dituzten erakunde publiko eta pribatuetatik datozen beste laguntza batzuekin, betiere gain finantzaketarik gertatzen ez bada; mugahori gaindituz gero, programa honen bidez eman beharreko diru-laguntza murriztu egingo da, gainditutako zenbatekoan.

Beste laguntza batzuk jasoz gero, laguntza ematen duen erakundearen ziurtagiria aurkeztu beharko du interesdunak, eta bertan, jasotako zenbatekoa adierazi beharko du.



6. artikulua. Diruz lagundu daitekeen ikastaroa.

Deialdi honen bidez diruz lagunduko da 2022ko martxoa eta ekaina bitartean emandako ikastaroa. "Haurren trebetasun sozialak lantzeko dinamizazio-estrategietan espezializazio ikastaroa" Mondragon Unibertsitateko HUHEZI fakultateak eskainitakoa.

7. artikulua. Lekua eta aurkeztu beharreko dokumentazioa.

Eskabideak, ahal dela, Eskoriatzako Udalaren egoitza elektronikoaren bidez izapidetu beharko dira, www.eskoriatza.eus helbidean, aurrerago zerrendatutako dokumentazioarekin batera. Edonola ere, inprimakiak Udaleko Erregistro Orokorrean aurkezteko aukera mantentzen da.

Halaber, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatutako lekuetan ere aurkeztu ahal izango dira.

Eskabide-orriarekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira: Eskoriatzako biztanle izaera udalak berak egiaztatuko du Udal Erroldaren bitartez.

- a) Diru-laguntza eskaera inprimakia
- b) Eskatzailearen NAN fotokopia
- c) 10-13 urte bitarteko haur eta aurrenerabeen monitore gisa lan egiten duen enpresarenzi-urtagiria, zerbitzuak emandako denbora jasotzen duena.
- d) Dagokion ikastaroan matrikulatutako agiria, ikasleak sinatuta. Agiri horretan, ikastaroaren kostu ekonomikoa eta ikasleen inskripzio-data adierazi beharko da
- e) Xede berarekin eskatu edo jaso diren beste diru-laguntza batzuei buruzko aitortpena.
- f) Eskaera orrian bertan agertzen den Zinpeko Aitorpen ereduak behar bezala beteta, besteak beste:
 - Azaroaren 17ko 38/2003 Legeko 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan aipatzen diren diru laguntzak jasotzeko debekuetatik batean ere ez dagoela adierazteko.
 - Emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioen kontrako zigorri ez duela adierazteko.
 - Sexuaren ziozko bereizkeriatatik zigor administratibo edo penalik jaso ez duela adierazteko. Ordenantzaren 8.8 a) eta b) artikulua.

Eskaera aurkezteak eskatzaileak oinarri hauetan ezarritako baldintzak osorik onartzea dakar.

8.- artikulua. Diru laguntzak eskatzeko epea.

Eskaerak aurkezteko epea diru laguntzetarako deialdia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondorengo egun baliodunean hasiko da eta 2022ko ekainaren 27an amaituko da.

9.- artikulua. Akatsak zuzentzea eta dokumentazio osagarria.

1. Eskabideak edo horrekin aurkeztu beharreko dokumentuek akatsik izanez gero edo osatugabeak badira, interesdunari, azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 71.1 artikuluan jasota bezala, hamar eguneko epea emango zaio antzemandako akatsak konpontzeko. Eta ohartaraziko zaio epea igarota horrelakorik egin gabe, eskariari uko egin diola ulertuko dela, Lege horretako 42.1 artikuluan aurreikusitako moduan.
2. Aurkeztutako eskaera egoki ebaluatu eta erabaki ahal izateko beharrezkotzat jotzen



duen behar beste dokumentu eta informazio osagarri eskatu ahal izango die Udalak eskatzaileei.

10.- artikulua. Diru laguntzak emateko prozedura.

1. Diru laguntzetarako deialdia egitea Alkate-Udalburuari dagokio, eta horrek hartutako erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.
2. Diru laguntzak emateko prozedura instruitzea Gazteria teknikariari dagokio, eta erabaki proposamena egiteko datuak zehazteko, horiek ezagutzeko eta egiaztatzeko egoki irizitako behar besteko jarduketa egingo ditu ofizioz.
3. Instrukzio fasea hasteko, Gazteria teknikariak diru laguntza eskaeren aurre ebaluazioa egingo du: eskatzaileek diru laguntzaren onuradun izateko ezarritako baldintzak betetzen dituztela eta aurkeztutako dokumentazioa osoaeta zuzena dela egiaztatzea.
4. Ebaluazioa egin ondoren gazteria teknikariak txosten teknikoa eta ebazpen proposamena egingo du.
5. Instruktoarearen proposamena batzorde informatzaileak aztertuko du eta erabakia hartuko duen organoari, hau da alkateari, emateko eta, horrela badagokio, dirulaguntza proposamena egingo dio.
6. Alkate ebazpena.

11.- artikulua. Diru laguntza emateko erabakia.

1. Eskabideak Alkateari ebazpen bidez ebatziko dira, aurkeztutako dataren hurrenkerari jarraituz.
2. Ebazpenak eman eta interesdunei jakinaraziko zaizkie, gehienez ere 3 hilabeteko epean, eskabidea aurkeztu den egunetik zenbatzen hasita, eta hala badagokio, laguntzen zenbatekoa eta helburuak adieraziko dira. Epe hori igaro eta jakinarazpenik ez bada, eskabideak ezetsizat joko dira.
3. Laguntzak emateko ebazpenek, halaber, laguntzak ordaintzea onartu ahal izango dute, betiere eskabidearekin batera dagokion frogagiriak aurkeztu badira.

12. artikulua. Justifikatzeko dokumentazioa.

Laguntzak ordaintzeko erabakigarria da ikastaroa egitea eta gainditzea. Hori dela-eta, behar diren egiaztagiria honako hauek izango dira:

- Ikastaroa ematen duen erakundeak emandako ziurtagiria, ikastaroa gainditu duela egiaztatzen duena..
- Bertaratze- ziurtagiria: ikastaroa gainditu bada ere, %80ko bertaratzea egiaztatu behar da.

Dokumentazio hori eskabidearekin batera aurkeztu ahal izango da (kasu horretan, diru laguntza emateko ebazpenak, gainera, ordainketa onartu ahal izango du) edo diru laguntza emateko ebazpenaren ondoren. Hala ere, aurkeztutako epea 2022ko irailaren 31an amaituko da.



13. artikulua. Onuradunen betebeharrak

1. Laguntzen onuradunek ematen diren helbururako erabili beharko dute.
2. Aurreko paragrafoetan xedatutakoaz gain, deialdi honetan araututako laguntzen onuradunek betebeharrak hauek izango dituzte:
 - a) Laguntza emateko eta ordaintzeko betekizunak eta baldintzak betetzen direla egiaztatzea.
 - b) Eskoriatzako Udalak eskatutako informazioa ematea eta egiaztapenak onartzea.
 - c) Eskoriatzako Udalarari jakinaraztea laguntzaren xede den ikastaroan parte hartzeko beste diru-laguntza, laguntza edo diru-sarrera batzuk jaso dituela.

14. artikulua. Dirulaguntza ordaintzeko modua.

Ordainketaren ebazpena justifikazio-agiriak aurkeztu ondoren egingo da, 12. oinarrian ezarritakoaren arabera.

Emandako diru-laguntza transferentzia bidez ordainduko da, dagokion ebazpena onartu eta gehienez ere bi hilabeteko epean, dagokion justifikazioa egin ondoren.

15. artikulua. Ez betetzea.

Deialdi honetako oinarrietan ezarritakoa ez betetzeak edo emandako datuak faltsutzeak laguntza galtzea eta jasotako zenbatekoak itzultzea ekarriko du. Legez aurreikusitako kasuetan, gainera, dagokion berandutze-interesa eskatuko da, diru-laguntza ordaintzendenetik itzultzen den arte.

16. artikulua. Oinarriak interpretatzea.

Oinarri hauek interpretatzerakoan, aplikatzerakoan edo horien ondorioetarako zalantzarik izanez gero, Alkateak erabakiko du Euskara, gazteria eta hezkuntza batzorde informatzaileak aurrez txostena eginda.

17. artikulua. Garapena eta exekuzioa.

Oinarri hauek exekutatu ahal izateko behar beste erabaki hartzeko ahalmena ematen zaio Alkate-Udalburuari.

18.- artikulua. Indarrean jartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunean izango dira indarrean.



DIRULAGUNTZA ESKAERA

Solicitud de subvención

IZEN-ABIZENAK / Nombre y apellidos	NAN / DNI
---	------------------

Orri hau beste baten izenean betez gero, idatzi horren datuak ere ondorengo taulan:

En caso de formalizar este escrito en nombre de una tercera persona o entidad, rellenar los siguientes datos

ZEINEN IZENEAN / En nombre de quién	NAN/IFK DNI/CIF
--	------------------------

Jakinarazpena bidaltzeko datuak / Datos para envío de notificaciones:

HELBIDEA / Dirección	HERRIA / Población	PK / CP
TFNO. FINKOA / Tfno. fijo	TFNO. MUGIKORRA / Tfno. móvil	E-maila

ESKATZEN DEN DIRULAGUNTZAREN IZENA / Nombre de la subvención solicitada
--

BANKUKO DATUAK / Datos bancarios			
KONTUAREN JABEA Titular de la cuenta			
BANKETXEA Entidad bancaria		KONTU zb. (20 digitu) Nº cuenta (20 dígitos)	



DATUEN EGIAZTAPENA / Verificación de datos	
<p>Eskoriatzako Udalak zuzenean egiaztatuko ditu sektore publikoko edozein erakundetan beharrezkoak diren datuak, deialdia arautzen duten oinarrietan jasotako laguntzak eskuratzeko.</p> <p>Zehazki, ondorengo kontsulta hauek egingo ditu:</p> <ul style="list-style-type: none">- Interesdunak Gizarte Segurantzarekin eta Foru Ogasunarekin zerga obligazioak betetzen dituela. <p>Interesduna egiaztatze horren aurka ager daiteke, eta kasu horretan eskatutako ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.</p>	<p>El Ayuntamiento de Eskoriatza verificará directamente los datos necesarios en cualquier entidad del sector público, para acceder a las ayudas recogidas en las bases que rigen la convocatoria.</p> <p>Concretamente, realizará las siguientes consultas:</p> <ul style="list-style-type: none">- Que la persona interesada se halla al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias frente a la Seguridad Social y la Hacienda Foral. <p>La persona interesada podrá oponerse a dicha verificación, debiendo aportar en ese caso los certificados requeridos.</p>
<p><input type="checkbox"/> Aurka nago, eta beraz, eskatutako dokumentazioa aurkezten dut. No estoy de acuerdo, y en consecuencia, aporto la documentación requerida.</p>	

ZINPEKO AITORPENA / Declaración jurada	
<p>Eskatzaileak (edo berak ordezkatzeko duen erakundeak edo pertsonak): El/la solicitante (o en su caso, la persona o entidad a la que representa):</p>	
<ul style="list-style-type: none">Ba al du hasita edo tramitean dirua itzultzeko inolako prozedurarik Euskadiko Administrazio Orokorrean eta bere organismo autonomoetan, beraiengandik jasotako dirulaguntzen eremuan? ¿Se halla incurso en algún proceso de devolución económica ante la Administración General del País Vasco y sus organismos autónomos, en el ámbito de las subvenciones recibidas de ellos?	<p><input type="checkbox"/> Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No</p>
<ul style="list-style-type: none">Beste inongo erakundetan eskatu al du dirulaguntzarik jarduera horretarako? ¿Ha solicitado a alguna otra entidad subvención para llevar a cabo las actividades mencionadas?	<p><input type="checkbox"/> Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No</p>
<ul style="list-style-type: none">Sexu-diskriminazioagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunerako legearen ondorioz, jaso al du administrazio-zigorrik edo zigor penalik? ¿Ha incurrido en discriminación sexual o ha recibido alguna sanción administrativa o penal como consecuencia de la ley para la igualdad de hombres y mujeres?	<p><input type="checkbox"/> Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No</p>
<ul style="list-style-type: none">Bere xede edo helburuak, aukeratzeko edo sartzeko sistema, funtzionamendua, ibilbidea, jarduera, antolamendua edo estatutuak, emakumeen eta gizonen aukera-berdintasuneko printzipioaren kontrakoak al dira? Sus fines u objetivos, sistema de admisión o acceso, funcionamiento, trayectoria, actuación, organización o estatutos, ¿son contrarios al principio de igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres?	<p><input type="checkbox"/> Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No</p>
<ul style="list-style-type: none">Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 13. artikuluko 2. eta 3. ataletan dirulaguntzak jasotzeko aipatutako debekurik ba al dauka? ¿Incurre en alguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones, señaladas en los apartados 2 y 3 del artículo 13 de la Ley 38/2003 de 17 de noviembre?	<p><input type="checkbox"/> Bai / Sí <input type="checkbox"/> Ez / No</p>



DATUEN TRATAMENDUARI BURUZKO OINARRIZKO INFORMAZIOA Información básica sobre el tratamiento de datos		
ESKORIATZAKO UDALA Kontuan hartuta zer xedatzen duten Datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduak, eta Datu pertsonalen babesari eta eskubide digitalen bermeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak, jakinarazten dizugu formulario honetan jasotako datuen tratamendua konfidentziala izango dela eta ESKORIATZAKO UDALaren erantzukizunpean egingo dela, helbidea: Fernando Eskoriatza plaza 1, 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa).	Arduraduna Responsable	ESKORIATZAKO UDALA – AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA De conformidad con lo dispuesto en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales y a la libre circulación de estos datos y la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales; le informamos que los datos aportados en este formulario, serán susceptibles de tratamiento estrictamente confidencial bajo la responsabilidad de ESKORIATZAKO UDALA - AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA, con domicilio en Fernando Eskoriatza plaza 1. 20540 Eskoriatza (Gipuzkoa).
Laguntza kudeatzea eta baldintzak betetzen diren baloratzea. Laguntza beste erakunde batek ematen badu, dokumentuak prestatzen eta bidaltzen laguntzea.	Xedea Finalidad	Gestionar la ayuda y valorar el cumplimiento de los requisitos. En caso de que sea otra entidad la que otorgue la ayuda, asistir con la elaboración de los documentos y envío de los mismos.
Datuak tratatzeko legitimazioa zuri eskatzen zaizun eta eskaera honekin batera entregatzen duzun baimen libre, argi, informatu eta agerian oinarritzen da, hori kentzeko aukera eragotzi gabe.	Legitimazioa Legitimación	La legitimación para el tratamiento de los datos está basada en el consentimiento libre, expreso, informado e inequívoco que se le solicita, sin perjuicio de la posible retirada del mismo.
Interesdunak inprimaki honetan bertan emandakoak.	Jatorria Procedencia	Facilitado por la propia persona interesada en la presente instancia.
Datuak eskumenak dituzten administrazio publikoei jakinaraziko zaizkie. Beste entitate batzuei ere jakinaraziko zaizkie, zuzenean Udalak egiten ez dituen jarduerak egiteko. Jarduera horiek kontratu edo hitzarmen batean arautuko dira, eta horietan, datuak tratatzeko baldintzak ezarriko dira, araudia betetzen dela bermatzeko.	Hartzaileak Entidades destinatarias	Los datos se comunicarán a las Administraciones Públicas con Competencias. Y a otras entidades para el ejercicio de actividades que no se realicen directamente por el Ayuntamiento y que vendrán reguladas en un contrato o convenio, en los que se establecerán las condiciones del tratamiento de datos para asegurar el cumplimiento de la normativa.
Datuak eskuratzea, zuzentzea, ezabatzea, datuen tratamendua mugatzea eta aurkaratzea, eta datuak eramatea, bai eta informazio gehigarria azaldu diren beste eskubide batzuk ere. Eskubide horiek baliatu ditzakezu idatzi bat bidalitzeko ohiko postaz goian adierazitako Udalaren helbidera, nortasun-agiriaren fotokopiarekin batera, edo, telematikoki, esteka honen bidez: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?id=ESKA	Eskubideak Derechos	Acceso, rectificación, supresión, limitación, oposición y portabilidad, así como otros derechos explicados en la Información Adicional. Puede ejercerlos remitiendo un escrito por correo postal a la dirección arriba indicada y acompañándolo de fotocopia de documento de identidad acreditativo, o telemáticamente a través del siguiente enlace: https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/7.00/SolicitudDetalle.aspx?id=ESKA
Datuen babesari buruzko informazio gehigarria gure pribatasun-politikan kontsultatu dezakezu. http://eskoriatza.eus/udala/privatutasun-politika/	Informazio gehigarria Información adicional	Puede consultar la información adicional sobre Protección de Datos en nuestra Política de Privacidad. http://eskoriatza.eus/es/ayuntamiento/politica-de-privacidad/

Eskoriatza,koarena
Sin.

Sinadura bakar honekin sinatuta geratzen dira inprimaki honetako gainerako orriak ere. Eskatzaileak adierazten du adierazitako datuak egiazkoak direla, eta, beraz, bere gain hartzen du datuak oker egotearen erantzukizuna. /
La firma de esta hoja supone la del resto de las hojas del formulario. La persona solicitante declara que los datos expresados son ciertos, por lo que se hace responsable de las inexactitudes o errores que contenga.